

- **Kirola:** Erregional taldea lehenengo mailan.
- **Erreportaia:** Pedri Lete eta Gay Harrotasunaren Eguna

soraluzeko
hamabostekaria **201.** alea
2009ko ekainaren 19an

@ pil-pilean



**Dantza giro ederra
Erromerixa Egunean**

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99

- 21etan Afari merienda
- 23etan Sua piztu
- Sorgin dantza
- Edabe majikoa
- Urteko oroitzapen txarrak sutara
- Suaren gainetik salto

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99

SORGIN DANTZA IKASTEKO ENTSAIO EGUNAK:
Ekainak 18 eta 22, arratsaldeko 19:30ean Herri Ikastetxeko aretoan



argitek

ELEKTRIZITATEA

INSTALATZAILE zk.20/CCBT-1727

Instalazioak etxebizitzetan

Instalazio industrialak

Azterketak

Sareak

SORALUZE

T.: 607 486 428

argitek@hotmail.es



EVE Ente Vasco de la Energía

%50eko

dirulaguntza 25 urte

baino gehiagoko

antzinatasuna duen

berrizketa lanetan,

gehienez 1000 € koa.





GUTUNAK

Txipiren erantzuna

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldeak aldizkari Shonen aurreko alean kaleratutako gutunaren aurrean, Maiatzaren 13ko bilkuran esandakoa aktan literalki jasota dagoen bezala jakinarazi nahi nieke soraluzetar guztiei:

Ezker Abertzaleko zinegotziok bat egiten dugu euskal preso politikoen senideek helarazi diguten mozioarekin. Eusko Alderdi Jeltzaleak gaurko plenoan sartu nahi izan duen mozio alternatiboak, Udal Batzarrak aurreko urteetan onartu izan dituen eskaerak baino ez dituela biltzen iruditzen zaigu eta, honez gain, Peio Etxeberría Lete preso soraluzetarraren egoera aipatu ere ez duela egiten. Preso honen eskubideak, gainerako euskal preso politiko guztienak bezalaxe, murriztuak izan dira, batez ere azken urteotan. Gure ustez, Eusko Alderdi Jeltzaleak, bere mozioarekin nahi izan duena zera da: onartu berri dugun mozioaren sinatzaileek eskatu diguten laguntza itzaltzea eta ezkutatzea.

Eskerrik asko, Soraluze

Nire ilobak garun-paralisia du eta berari laguntzeko modu bat behar nuela pentsatu nuen. Horrela, herrian loteriako rifak saltzea otu zitzaidan. Jende mordoak lagundu dit eta horregatik,

Eusko Alkartasunak, ezker abertzaleko haitetsiek, LAB, EHE, SEGI, Gazte Asanblada, ELKARTZEN, Soraluzeko Txuri Urdinak, Txirindulari Elkarteak, Futbol Taldea, Mendi Taldea eta Pelota Taldearen herri ordezkariak eta aurkeztu dituzten 603 sinadurek merezi diguten errespetuagatik, Udal honetako talde politiko eta zinegotziok aurkeztutako mozioaren inguruan daukagun iritzia ematea nahi izan dugu.

Ekainaren 3ko Ohizko Osoko Bilkurako gai zerrrendan Eusko Alderdi Jeltzaleak preso politikoen egoerari buruz aurkeztutako mozioa txertatu zen. Eztabaidatu eta bozkatzeko ordua iritsi zenean Eusko Alderdi Jeltzaleak mozioa erretiratzea eskatu zuen. Hori da gertatu dena eta hortik aurrera bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Agur bana denondako, izan ondo eta betira arte.

JOSE LUIS ARIZAGA URIZAR, Alkatea.

eskerrak eman nahi dizkiet Soraluzeko herriari emandako babesagatik. Bide batez, nere ilobaren egoeran daudenei animoak helarazi nahi dizkiet.

CONCHI POZO CARROZA

Diruaren truke eta garapenaren izenean

Maiatzean zehar garapenkeriaren aurkako jardunaldiak (*jardunaldi antidesarrollistak*) izan dira herrian, ekintza desberdinez osaturikoak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, mendi irteerak, bazkariak eta kontzertuak.

Zapatua 30ean, hauei bukaera emateko, egun osoko egitaraua izan genuen: truke azoka, triki poteo pegada, bazkaria, parodia eta kontzertua. Arratsaldeko parodian, Espainiako Gobernu eta Eusko Jaularitzaren aldetik baseritarrek jasaten duten tratu txarrak adierazi nahi genituen, expiazioak nola egiten dituzten eta obrak has-teko moduak. Antzerki honen bukaeran Gila zubi erdian trenbide bat margotu genuen eta ziur aski pintada honek, beste hainbatek moduan, zer esan handia sortu duela herritarrongan. Ganberrada bat dala, zubia desitxuratzen duela eta mila gauza desberdin pentsatuko zenituzten.

Pintada hauek hainbeste zeresan eman badute, gonbite bat luzatu nahi dizuegu gaur egun martxan jarri diren AHT ko obrak ikustera: Aramaixo, Eskoriatza, Urbina, Abadino, Durango moduko hainbat herritara. Denon izenean azken urte hauetan egin dituzten azpiegitura haundi desberdinak ikustera joateko gonbitea, Eibar-Gasteiz, Leitazarango Autobidea, Termikak, poligono industrialak etab luze bat. Hauek bai direla ganberrada, makarrada ta gure Euskal Herria desitxuratzen ari diren obra txikitzaileak. Diruaren truke eta garapenaren izenean gure inguru ederra suntsitzen ari diren obra txikitzaileak.

Denon esku dago hau dena gelditu eta gizarte eredu desberdin bat eraikitzea, desarrollismoaren eragin suntsitzaileak atzean uztea ahalbidetuko duen gizarte bizitza orekatu eta aske bat sortzeko.

SORALUZeko TALDE ANTIDESARROLLISTA

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari- esanen eta iritzien erantzunik.

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarteak. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredaktoreak:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitateak:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000 **Azaleko argazkia:** Jokin Etxaniz

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Xabier Iñurrieta

Tradizioak berritu

Bistakoa da Gizartea aurrerapausuak ematen ari dela sexoen arteko berdintasunerako bidean. Esate baterako, herriko Soziedadeetan emakumeak partaide izan daitezke edota hauteskundeetarako zerrendetan partekotasuna derrigorrezkoa da. Zentzu berdinean bultzada eman nahirik guk, txikitero progresistak, puntu bakarreko dekalogoia herriaren aurrean ematen dugu ezagutzera:

-Soraluzeko Udalari esigitzen diogu dekretu, panfleto, bando edo dana dalakoaren bitartez indarrean jar dezala partekotasuna txikiteoan, hau da, zenbat gizakume horrenbeste emakume txikiteo talde bakoitzean. (*Bueno, gutxi gora behera*).

Prozesu honetan laguntzeko gure aldetik esku zabal jokatu nahi dugu eta zurito, mosto, sagardo edo horrelako edari txepelen aurrean protesta handiegirik ez dugula egingo hitza ematen dugu. Sujerentzia gisa edo, adinean media txukuna izateko zera eskatuko genuke, aukeran neska gazteak nahiago. Eman dugu lehen pausoa. Orain Udalari dagokio fitxa mugitzea. Zain gelditzen gara (*tabernako barran, noski*).

**ZURRUTER'S LONELY
HEARTS CLUB BAND**

(*Etxeke buzoian aurkitutako moduan, erretrato eta guzti, laga dot. Ezer gehitu edo kendu barik*).

Soraluzeko Talde Antidesarrollista

Maiatzean hasita hilabete Miraun du gaztetxeak antolatutako jardunaldi antidesarrollistak. Programan denetik izan dute antzerkiak, bideo-emanaldiak, txangoak, kontzertuak eta hitzaldiak.

Zein da zuen ustez desarrollismoaren esanahia?

Desarrollismoa aipatzen dugunean, gaur egungo bizi-eredu burugabeaz ari gara. Handikerria, berekoikeria, lurren eta pertsonen esplotazio eta zapalkuntza... Geure buruen jabe gero eta gutxiago garen heinean, menpekotasun handiagoa makienganako.

Zergatik antolatu dituzue jardunaldi antidesarrollistak?

Kalean eztabaida sortzea nahi genuelako. Gizarte eredu hau zailtzan jartzeko hainbat gai jarri ditugu mahai gainean: krisi energetikoa, Abiadura Handiko Trena, kontsumoa, hondakin nuklearren garraioa, etab.

Jardunaldi hauek hilabete iraun dute. Baina lehenagotik bazabiltzate lanean, ezta?

Urte batzuk daramatzagu gaztetxean AHTren gaia jorratzen eta beharrezkoa ikusi genuen talde bat sortzea bai AHT eta bai eguneroko bizitzan egiten duguna lantzeko, garraioa, kontsumoa, etxebizitza, etab. Astelehen arratsaldetan biltzen gara eta ateak zabalik daude.

Zein da zuen ustez desarrollismoaren egoera Euskal Herrian? Aurrera doa etengabe.


Nabarmen ikus dezakegu azpiegitura erraldoietan, superportuak, zentral termikoak, AHT... Baina baita egunerokotasunean ere, autoen ugaritzean adibidez: Soraluzen bi pertsonako kotxe bat dugu. Beharrezkoa al da?

AHT EZ egunean egin zuten parodia

Zeintzuk dira garapenak izan ditzakeen ondorioak?

Ondorioak ikusten hasiak gara. Herrietako bizitza galtzen ari da pixkanaka, gure bizitzak hirietan zentralizatzen direlako. Baina ondorio larrienak munduko beste bazter batzuetan ikus daitezke: gerrak, heriotzak... Konparatu besterik ez dago gure luxuzko bizitza eta ezer ez duenaren miseria.

Ba al du konponbiderik?

Gure ustez konponbidea norberarengan dago. Guztiok gara errealitate hau mantentzen dugunak, eta guztion esku dago honi aurre egitea. 

**Soraluzen
bi pertsonako
kotxe bat dugu.
Beharrezkoa
al da?**

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49





HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeke eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Kiroldegia berrizten hasi dira



Irudian zinearen egungo egoera

Aste honetan bertan hasi dira kiroldegiko eraberritze lanak. Aldagelak eta zinea berriztuko dira eta jadanik itxita dagoen taberna ez da aurreikusten berriz zabaltzerik. Udalbatzarrean onartutako aurrekontutik 200.000 € kiroldegiko berogailu-sistema ipintzeko erabiliko dira. Bestalde, herriko kultur elkarreetako kideez osatutako lagun

talde batek, zineko proiektuaren inguruan ekarpenak jasotzen ditu eta manifestu bat idatzi. Besteak beste, zinea kultur emanaldietarako soilik erabiltzea, lehendik dauden besaulkietatik lehen hamar ilarak berrerabiltzea eta bestelako azpiegitura batzuen inguruko berraztertzea eskatu dute. ☞

Udalbatzarrak futbol zelaia berritzeko kreditua aho batez onartu du

Ekainaren 3ko Udalbatzarrean aho batez onartu zen Udal Gobernuak proposatutako 600.000 euroko kreditu aldaketa. Erabaki horrekin udalak futbol zelaia berritzeko 400.000 euroko kreditua eskatzeko aukera izango du eta beste 200.000 eurokoa kiroldegiko berogailu sistema aldatzeko. Bestalde, Udal karguen dirusarien jeitsiera ez zen onartu eta beste behin Udaleko Gobernu Taldeak proposatutako %10eko jeitsiera ez zen onartu, EAJ, PSE-EEk eta PP erabakiaren aurkako botua eman zutelako.

Gay Harrotasunaren bandera udaletxean

Herritar batek proposatuta eta osoko bilkuran aho batez onartu eta gero, ekainaren 28an, Gay Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, udaletxean ostadar bandera zintzilikatuko dute ikurrinaren ondoan.

Nagusilaneako ikastaroa boluntarioentzat



Hilaren 15etik 26ra bitartean, Nagusilane elkarrekin Mesedeetako Amaren Egoitzan boluntario izateko aurkeztu direnentzat ikastaro bat antolatu du. Alaitz Aizpuruak bideratuko du aipatutako ikastaroa eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo da Zaharren Egoitzan bertan. Dagoeneko, 4 pertsona aurkeztu dira boluntario izateko eta oraindik zabalik dago izen-ematea.

EPAko ikasleen eskulanak ikusgai

Atzotik astelenera bitartean, Soralezeko Hielduen Eskolako ikasleen eskulanak ikusgai egongo dira EPAn bertan 16:00etatik 19:00etara. Baiza ere, ekainaren 16tik 23ra bitartean datorren urterako aurrematrikula egin daiteke. Matrikula, irailako lehen hamabostaldian egin beharko da.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



Pedri Lete

56 urteko soraluzetarra

“Homosexualitatea beste sexu aukera bat da, beste bat gehiago”

Ekainaren 28an mundu osoan Gay Harrotasunaren Eguna aldarrikatuko da. Aurten Soraluzen ere aldarrikatuko da egun hau, Pedri Lete herritarrek orain dela 3 hilabete inguru udalean aurkeztu zuen mozio bati esker. PP alderdia izan zen ezezko botua eman zuen alderdi bakarra. Gauzak horrela, ekainaren 28an, lehen aldiz, gay bandera zintzilikatuko da gure herriko udaletxeko balkoitik.

Zer dela eta aurkeztu zenuen mozioa udalean?

Herrian ere gay harrotasunaren aldarrikapena egin behar zela uste nuelako. Hasiera baten, mundu guztiak ondo ikusten du gay izatearen kontua baina esatera zaharrak esaten duen moduan *“haurrek eta mozkorrek ez dute inoiz gezurrik esaten”*. Gertatu izan zait, tabernaren batean jendea mozkortu eta benetako adierazpen zatarrak entzutea. Gauza asko entzuten dira eta homofobiaren kontra egiteagaitik aurkeztu nuen mozioa, batez ere.

Beharrezkoa al da egun hau ospatzea?

Ez, beharrezkoa ez. Nik gay izatea egun guztietan aldarrikatzen dut baina egun honetan denok egin behar dugu hausnarketa. Gainera, urtean zehar egun ugari erabiltzen dira aldarrikapenak egiteko eta guk ere gurea izateari egoki irizten diot.

Herri txiki baten, zela eragiten du gay izateak?

Soraluze herri txikia da baina ez dut aparteko arazorik izan. Batez ere, ni familiakoiei

esan eta ondo ulertu zutelako. Ni ez nintzen armairutik irten, nik armairua lehertarazi egin nuen! (*barreak*) .Gainontzekoek zer pentsatzen duten berdin zait, neri bost! Gainera, norberak bere bizitza bizi behar du eta bizitza bakarra da. Frankoren garaian berri, oso zaila zen homosexuala izatea. Batez ere kartzelaren mehatxua atzetik genuelako. *“Vagos y maleantes”* eta *“peligroso social”* moduan izendatzen gintuzten.

Ze adinekin agertu zenuen etxean zure aukera sexuala?

Jaiotzetik dakit homosexuala naizela baina 22 urterekin esan nuen etxean. Orain dela 34 urte.Torremolinosen oporretatik bueltan izan zela gogoratzen dut. Nire arrebetako bati esan nion lehenengo. Gay aldarrikapena egiten zuen pegatina batekin azaldu nion nire aukera sexuala eta berak ongi ulertu zuen hasieratik. Gero beste arrebari eta ondoren anaiari esan nien eta azkenik gurasoei. Garai hartako mutil-lagun batekin eskutitz bidezko harremana nuen eta amari eskutitz hauetako bat zabalik laga nion mahai gainean. Hau izan zengay nintzela esateko modua. Gurasoek ere, naizen modukoa naizela ulertu zuten.

“Jaiotzetik dakit homosexuala naizela baina 22 urterekin esan nuen etxean”

Eta kalean, noiztik bizi duzu normaltasun osoz?

Normaltasun osoz etxean esan eta gero, 20 edo 22 urterekin. Lehen beste lagun kuadrila batekin ibiltzen nintzen eta hau izan zen aldatu zen gauza bakarra. Nire bizkarretara gaizki esaka ibiltzen zirela konturatu eta beste lagun batzuekin irtetzen hasi nintzen, gaur egun arte. Familia nire alde nuen eta beti pentsatu izan dut ni naizela nire bizitza bizi behar duena eta besteei *“que les den tila”*!

Eta zer da zailena?

Zailena nerretzat lehenengo pausoa izan zen, etxean homosexuala nintzela esatea hain zuzen ere. Argi neukan etxekeok onartzen ez baiduten herritik kanpo joango nintzela.

Egia al da gay-ak promiskuoak zaretela?

Denetarik dago baina egia da mugimendu homosexualen promiskuitate asko dagoela. Nik, nire bizitzan, etxera sartzeko moduko 3 mutil-lagun izan ditut baina ligeak asko. Bai herrian eta baita herritik kanpo ere! (*barreak*)

Zela ospatuko duzu ekainaren 28a?

Egin berri dudakamisetan estreinatuko dut. Aurten primizia gure udaletxeko balkoian gay bandera ikustea izango da, hori bai ez dudala galduko!! Bestela, bazkaritxo bereziren bat, manifestaldia eta gero poteoa.

Gomendioren bat ezkutuan dauden homosexualendako?

Euren bizitza egin dezatela. Behin bakarrik bizi behar dugu eta denbora azkarregi pasatzen da! Lehenengo norberak bere buruare-



“Franco-ren garaian “peligroso social” moduan izendatzen gintuzten.”

kin egin behar du borroka, eta garen modukoa onartu behar dugu geure burua. Homosexualak ez gara gainontzekoak baino gehiago edo gutxiago, berdin-berdinak gara. Homosexualitatea beste sexu aukera bat da, beste bat gehiago. ☞

Gay Harrotasunaren Egunaren jatorria

1969. urtean, New York hirian emandako istiluetatik dator egun hau. Stonewall Inn izeneko burdel batean gertatu ziren. Gay eta lesbianak mugitzen zituen putetxea zen eta urte horretako ekainaren 28an polizia mordo bat sartu eta izugarriko liskarrak gertatu ziren. Hain izan zen handia errepresioa, handik urte gutxira polizia eta gay-en arteko futbol partidak jokatzen hasi ziren, normaltasuna bilatzeko asmoz. Ordundik dator Gay Harrotasunaren Eguna.

MOTZIAN**Fededuna al zara?**

Bai, Jainkuakin sinisten dot. Eliziakin ez!

Parrandarako leku bat?

Herrixan Gila tabernia. Bestela, Bilbo.

Oporretarako leku bat?

Kanariar uhartiak.

Musika talde bat?

Fangoria.

Liburu bat?


“El señor de los anillos”

Izen bat?

Sara.

Ezkontzarik bai ala ez?

Bai noski!



“Aurten primizia gure udaletxeko balkoian gay bandera ikustea izango da.”

ZER IRIZTEN DOTSAZU?


Martxoaren Ieko hauteskunde autonomikoetan lehendakaritza PSOE-k bereganatu zuen PP-ren babesari esker. Estrekinetikoz bi alderdiok agintean daude.

Zer uste dozu aldatuko dala lehendakaritza barrixakin?


KRISTINA ARIZAGA
Erizain laguntzailea



REYES SOLANA
Etxeko andria



JESUS MARI OJANGUREN
Jubilatua



GONZALO ARIZNABARRETA
Fundidoria



Nik ez dot espero aldaketa haundirik gobernu barrixan aldetik. Egixa esan, ez dakat konfiantzarik PSOEN-gan eta egoeriak oin arte moduan jarraituko dabela uste dot. Ikusiko da.

Aldaketak egon egongo dira. Ez dot politikaz askorik aitzen baina pentsatzen dot beste alderdi bat lehendakaritzan egotia zerbait aldatuko dabela. Nik dana ondo jautia espero dot, denboriak inikusiko da.

PP-kin gobernu osatzen txarto jokatu dabela pentsatzen jata. Baleike egoeria txarrera jautia, hemen oingoz ondo bizi gara, baina ezin geinke jakin zer pasatuko dan PSOE-kin.

Aldaketak egongo dira baina gure kalterako izango dira. Uste dot euskeriari egurra emongo dotsela bere soziko dan PP-kin batera. Bestelako gaixetan aurrekuen antzeko erabagixak hartuko dirala pentsatzen jata.

... esnatzea.

... ospea.

... desengainua.

... etsipena.

KOMIKIXA



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkiorbebetia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

Kontrargiren argazkiak erakusketa gelan



Erakusketa gelan ikusgai daude Mikel Valero, Fernando Oregi, Julio Mendikute, Gorka Soraluze, Ekaitz Uzin eta Mario Loscos herriko argazkilarien lanak ekainaren 28a bitartean. Ordutegia, lan egunetan 19:00etatik 20:30etara eta asteburuan 12:00etatik 13:30etara izango da.

Sorgin dantzako entsaioak

Urtero moduan aurten ere, San Juan bezperako sua piztuko da plazan. Gaueko bederatzietan afari merienda egingo da plazan bertan eta hamaiketan sua piztu ostean, sorgin dantza egin eta edabe majikoa edango dute. Azkenik, oroitzapen txarrak sutara bota eta suaren gainetik saltoka jardungo dute. Sorgin dantza ikasteko azken entsaioa, ekainaren 22an izango da, arratsaldeko 19:30etan, Plaentxi Herri Ikastetxeko aretoan.

Musika Eskolaren azken kontzertua

Gaur, ekainak 19, gaueko 22:00etan kurtso bukaerako azken kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek Plaza Zaharrean. Bide batez, arduradunek gogorarazi nahi dute datorren ikasturteko matrikulazio epea oraindik zabalik dagoela ekainaren 22ra arte.

San Andresko jaietan txopo-makila altxatuko dute



Pasa dan urteko San Andres auzoko jaiak

Uztailaren 11, 12 eta 13an egingo dira San Andres auzoko jaiak. Lehenengo egunean -Gazte Egunean-, sagardo jaia, herri afaria (*txartelak uztailaren 8ra arte, 16 eurotan, Gaztelupe, Gila eta Arrano tabernetan*) eta Beste Bat taldeak eta Darling Shoes talde soraluzetarrak girotutako erromeria izango da. Domekan berriz, mezaren ostean, pelota partiduak, Mendotz eta Bixkai trikitilariak eta Izagirre eta Gurrutxaga ber-

tsolariak jardungo dira. Arratsaldez, harrijasotzaile txapelketa eta zezentxoak izango dira. Astelehena auzokoen eguna izango da eta auzotarren bazkaria egingo dute Lizaso, Egaña eta Murua bertsolariekin batera. Hala ere, aurtengo berrikuntzarik aipagarriena jai gunean altxatuko duten txopo-makila izango da. Puntan ikurriña jarriko diote eta goraino igo eta ikurriña ikutzen duenak afaria doan izango du. [G](#)



Iturria: Aitor Aizpuru

Jende mordoxxa Ezoziko Jaietan

Joan zen domekan gustura ibili ziren umeak Ezozin izan ziren poni eta zezentxoekin. Goiz partean herri kiroletan eta iluntzeko bola txapelketan ere jende mordoxxa izan zen.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Discinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak


Erregionalak mailaz igotzea lortu du



Entrenatzaileek talde bakoitzeko goleatzaile eta jokalaria erregularrenak saritu zituzten.

Itzulerako partiduan Kostkasi 0-1 irabazi eta gero, erregionalak mailaz igotzea lortu du. Datorren denboraldian lehen mailan jokatu du. Azken partidurako autobusa zaleez beteta irten zen herritik eta itzuleran, alkateak eta zaleek harrera beroa egin zieten kirolariei udaletxean.

Joan zen zapatuan berriz, Sorako futbol talde guztiek afaria egin zuten Txurruka jatetxean denboraldiari agur esateko. 97 lagun batu ziren mahaiaren bueltan eta giro paregabean eman zuten eguna. Hauek izan ziren banatutako sariak:

Goleatzaile onenak: kade-teetan, Koldo Ojea, jubeniletan, Iker Benito, erregionalan, Marco Rascón eta nesketan Eneritz Txopitea. Jokalari erregularrenak ere saritu zituzten, kade-teetan Odriozola, jubeniletan, Bolinaga eta nesketan eta erregionalan entrenatzaileek talde osoa saritu zuten. 

URBASARA IRTEERA KANPINEAN

Ekainaren 27 eta 28an

Prezioak:	65 € bazkideak (45 € umeak) eta 85 € ez bazkideak (65€ umeak)
Irteera:	zapatua 9:00etan
Itzulera:	domeka 18:00etan
Ordaintzeko lekua:	Iratxo Goxodenda
Ordaintzeko epea:	Ekainaren 25a
Kanpina eramatea beharrezkoa da.	
Antolatzailea:	Soraluzeko Mendi Taldea

EMAITZAK

FUTBOLA

Kostkas - Sora (Erreg.M.) 0-1

PELOTA

González - Laskurain 22

Berasaluze VIII - Mendizabal II 19

FUTBITO

Gamusinos - Gaztetxe 6-0

Hola Dok - Euskolabel 1-3

Bandera Trapo - Kastakuak 9-4

Apple River - Artifices 2-7

EGS - Torpedos 3-1

Fronton Team - Gare Izenbarik.. 5-4

AGENDA

FUTBITOIA

Barixakua 19,
19:00etan hasita, kiroldegian

Hola Dok - Artifices

Torpedo - Gamusinos

Apple River - Gare Izenbarik

Zapatua 20, 18:00etan hasita,

EGS - Kastakuak

Fronton Team - Euskolabel

Bandera Trapo - Gaztetxe

Barixakua 26, 19:00etan hasita,

Artifices - Gare Izenbarik

Bandera Trapo - Gamusinos

Hola Dok - Fronton Team

Zapatua 27,

18:00etan hasita,

Torpedos - Kastakuak

Apple River - Euskolabel

EGS - Gaztetxe

PELOTA

Barixakua 19,

22:15etan Urrestillan,

Mtz de Irujo - Beroiz

Gonzalez - Laskurain



MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



MARE ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA SOLARIUM
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



GAZTELUPE taberna
tel: 943 75 20 81

ARGAZKI ZAHARRA



IMANOL ALBERDIREN LEHENENGO MEZIA

Argazki hau, 1959ko apirilaren 21an etarata dago herriko frontoian. Antzinako Soraluze ziniaren parian. Imanol Alberdik herrixan emondako lehenengo mezian ostian bildu ziran abadieei etaratakua da hain zuzen be.

ARGAZKIKO ABADIAK:

Jose Antonio Arrillaga †
 Miguel Goikoetxea †
 Gonzalo Bereikua †
 Imanol Alberdi †
 Ascensio Gurrutxaga †
 Enrique Larrañaga
 Jose Antonio Loinaz



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



SORALUZEKO EUSKAL JAIK 2009

Eskerrak eman nahi dizkiegu jai hauen antolakuntzan laguntza eman diguten guztiei. Beste urte betez, euskal jai arrakastatsuak izan ditugu herrian eta aurrerantzean horrela izan dadin lanean jarraituko dugu.



Haurren euskal jaien herriko zein kanpotik etorritako umeek plaza zaharra girotu zuten.



Txangarrankua ere dantzatu zuten haurrek.



Kolore, marrazki eta tela guztietako soineko dotoreak ikusi ahal izan ziren.



Bazkarian 200 lagun inguru elkartu ziren sabela ondo betetzeko.



Lizarrako Larrain dantzak ikusteko aukera ere egon zen.



Umeek ere edarto pasa zuten elkarrekin dantzan.